



Astekaria



elgoi



Lutxi Arregi:
"Gartzelak ideiak
sendotu dizkit"



Aranburu

*Bitxi bat betirako oparia da. Gure lantegietan eginak,
merkatuko diseinurik berrienak dauzkagu.*

San Frantzisko 26 behea • 20870 ELGOIBAR • Tel. 74 25 35



MENDAROKO UDALAK
SANTIAGO ETA SANTA ANA
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
HERRITAR GUZTIOI

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gazteriarentzako elkartoki bat

Gazteei aukera eman behar zaie. Aukera eman behar zaie beraiek nahi dituzten gauzak antolatu ditzaten. Aukera eman behar zaie egiteko kapaz diren gauzak egin ditzaten. Horretarako gazteek leku bat behar dute, bertan elkartu, egon, hitzegin eta beraien behar eta interesen arabera nahi dituzten ekimenak prestatu eta burutzeko.

Horren beharra nabarmena da gure herrian. Herritar askoren iritzia berak hala erakusten du. **BARREN**en bertan irakurri ahal izan genuen hauteskunde garaian, alkate berriari gazteak elkartzeko toki bat egotea eskatzen ziotela kale inkestan galdetutako erdiek (**BARREN**, 109. zenbakia). Beste zenbaitetan ere azaldu du jendeak behar hori, bereziki gazteek. Eta ez da batere harritzekoa, izan ere, jubilatuek Zaharren Egoitza duten bezala, gazteek zergatik ez dute eduki behar halako edo antzerako topagune bat ?


Gainera, gazteek ederki erakutsi dute badakitela gauzak egiten eta antolatzen. Besteak beste, Trinitate jaietako Tanborrada oso-osorik gazteak antolatu zuten eta ikusi zenuten nolako dotore atera zen. Edo badaukagu beste adibide argi bat ere: Gaztetxea zutik egon zen

urteetan, Elgoibarko Gazte Asanbladak hainbat eta hainbat hitzaldi, kontzertu, zine emanaldi, irteera, erakusketa eta bestelako ekitaldiak antolatu zituen. Udaleko Kultura batzordea bera inbidiatan jartzeko moduko egitarau zabal.

Gaur egun ez daukagu Gaztetxerik herrian, ez eta gazteentzako bestelako leku propiorik ere. Urteak dira Udaleko agintariek bizkarra ematen diotela era honetako eskaerari. Nire ustez ez da jokabide zuzena. Udalak edo bertan agintzen duten ordezkariak leku bat, lokal bat eskaini beharko lukete gazteriarentzat. Gero, gazteek beraiek, interesa duten guztiek, Gazte Asanbladakoek nahiz gainontzeko guztiek, erabaki beharko lukete nola antolatu eta zer nolako erabilera eman. Zeren eta, beharbada, batzuentzat ez bailitzateke nahikoa izango Gaztetxearekin, eta beste era bateko zerbait ere sortu beharko litzateke. Horrela, denen nahia bete ahal izango litzateke. Borondatea badago, hitz eginez, posible da konponbide bat ematea gaztediarentzat hain garrantzitsua den kontu honi.

Jon Eugi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





Aste honetako erretratua **Kontxita Azkuek** lagatakoa da. Erretratua 1936. urtearen bueltan ateratakoa da eta bertan azaltzen direnak Elgoibarko orduko parroko eta apaizak dira.

Eurei buruzko informazioa **Julian Iriondok** eta **Luzia Zabalak** eman digute.

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuko elizgizonak. Ezkerretik hasita:

Celestino Onaindia jauna: Markinan jaiotakoa. Abertzalea. Gerra garaian Ondarretan kartzelan egon ondoren bertako harresian fusilatu zuten. Hernaniko kanposantuko kanpoko aldean lurperatu zuten.

Jose Ignacio Batiz jauna: Amorotokoa. Kinielak


asmatzeko formula zuela zioen berak. Diru guztiak kinielatan gatatzen zituen. Burutik aldresbetuta amaitu zuen.

Ceferino Urrestarazu jauna: Ataungoa. Herriko Parrokkoa zen. Sasoi konfliktiboan tokatu zitzaion parroko lanak betetzea.

Antonio Jaka jauna: Usurbilgoa. Irekia, ulerkorra eta unibertsala. Ez zuen Euskal Herriaren independentzia ulertzen eta onartzen.

Julian Zubeltzu jauna: Elgoibartarra. Santa Klara rako kaperaua. Abade ona.

Estanislao Opakua jauna: Elgoibartarra. Elortza ahizpen osaba. Apaiz jatorra, matxista xamarra: emakumeei elizako atzealdean jartzeko agintzen zien.



PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEA - MATXADAK - BERRIZATZEAK - PINTAKETA



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**
*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*
Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89



OIERKI IGONGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



TZERNA
Primeran pasa Jajak!
75 50 16 MENDARO

Dantzak kolorez jazten dira

Gizakia gizaki denetik dago gure artean dantza ere bai. Gizonezkoak emakumezko bat konkistatu nahi zuenean, dantza egiten omen zuen gustuko pertsonaren aurrean. Tradizionalki, beraz, gizonak izan du paper aktiboa eta neska, begiratzera mugatu izan da. Saltoak ikus daitezke mutilen dantzetan, oinen mugimendua da, batez ere, nesken dantzen ezaugarria. Kontua da, batzuek zein besteek, gorputzaren mugimendua arropa koloretsuen bidez aberasten dutela. Eta hori da, hain zuzen, aste honetan gure orrialdeetara ekarri nahi izan duguna.

Orain bederatzi urte antolatzen zen lehen aldiz Nazioarteko Folklore jaialdia Elgoibarren. Guztira 18 herrialde ezberdinetako dantza taldek hartu izan du parte eta bakoitzak, bere dantzez gain, jantziak ere erakutsi dizkigu. Aurten, uztailaren 27an, gaueko 10,30etatik aurrera, Haritz Euskal Dantzari Taldeaz gain, Afrikako Benin herriko "Kini-Kini" dantza taldea eta Errusiako Kabardino Balkaria errepublikako "Kabardinka" ikusteko aukera izango dugu. Haritzek, Juan Inazio Iztueta zaldibitarraren heriotzaren 150. urteurrena gogoratzeko, dantza maisuak hain maite zituen Gipuz-

koako Dantzak aurkeztuko ditu.

Herrialde bakoitzaren kultura arropetan ere isladatzen da eta arropak klimaren arabera izan ohi dira. Afrikatik etorritako talde batek apenas arroparik jantzen duen, Ekialdetik etorritakoak, aldiz, askoz ere jantzi estu eta konpletoagoak izan ohi dituzte. Bederatzi urte hauetan gauzak asko aldatu dira Haritz Euskal Dantzari Taldean eta, besteak beste, arropa aldetik izugarritzko aberastasuna bildu du. Urte bakoitzeko jantzi bat egin dute, gutxi gora-behera. Gaur egun, Haritzen armarioan, Euskal Herriko zazpi probintzietako arropak daude. Udaletxeak ematen dien

JAIALDIETAN AURKEZTUTAKO ZENBAIT JANTZI



SARASUA

1987

Yugoslavia eta Puerto Ricoko taldeak izan ziren. Haritzek Larrain Dantza eta **Luzaideko Ihauteria** aurkeztu zituen. Egin ziren lehen arropa berriak Luzaidekoak izan ziren. Mutilen arropak neskenak baino lan handiagoa dute. Alkandorak botoiz eta katez beterik daude eta buruko kaska, eskuko makila, bizkarra eta prakak koloreetako lazoz josita daude. Arropa hauek dantzarien artean egin zituzten.

1988

Antilletako eta Checoslovaquiako taldeak izan ziren. Haritzek **Eaurtako Nesken Dantza eta Otsagiko Dantzak** aurkeztu zituen. Nesken dantzen arropak izan zuten arazorik latzena tela berri eta bereziak topatzea izan zen. Otsagiko arropak hiru osagai nabarmen dituzte: txapel txiki bat borla batekin, eskapulario bat gorputzean eta lepoko zinta koloredunak. Hasieran Donostiako **Argia** taldekoek utzi zizkieten arropa hauek. Gero, Iruñeako denda zahar bateko jostunak egin zizkien. Halere ezin izan zuten tela berdinek erabili, gaur egun ez baita egiten. Apaizek elizkizunetan erabiltzen zituzten telak ziren. Belaun-azpiko narru zuriaren gainean txintxarriak dituzte dantzariak eta gerrian lotuta zapi zuria, dantzarako erabiltzen dena.



AZKUE



AZKUE

dirulaguntza taldean bertan inbertitu nahi izan dute eta, batez ere, jantziak egiteko erabiltzen dute. Izan ere, gaur egun milioi asko dago jantzietan inbertituta.

Urte hauetan guztietan Kontxi Ezenarro izan da Haritzi dantzarako arropak egin dizkion jostuna. Lehenbizi egin zuten jantzia Luzaidekoa izan zen. Urtez urte jantzi berri bat egiteak, kostu ekonomikoa ezezik, bestelakorik ere izan du. Izan ere, telak, botoiak, bordatuak eta beste hainbat gauza direla eta nahikoa arazo izan dituzte. Edozein tokitan saltzen ez duten materialez eginiko gonak eta prakak dira. Baionatik ekarri zuten terziopelo urdina, Madrilera

joan izan dira botoi jakin batzuren bila... Euskal Herrian ezezik, Estatuan ere makina bat denda arakatu behar izan dute arropak behar bezala josi ahal izateko. Era batera edo bestera, gaur egun Haritzek hainbat eta hainbat arropa ezberdin ditu eta horien guztien berri ezin hemen eman, tokirik ez baitauekagu. Halere, batzuk aukeratu ditugu, ezberdinak, berriak eta deigarriak. Eta gure sailkapen partikular horri helduz, hara hona atera zai-guna.



AZKUE

1989


Costa Ricako eta Bulgariako taldeak izan ziren. Haritzek **Lapurdiko Ihauteria** aurkeztu zuen. Beskoitzeko Claude Iruretagoiena dantzari eta jostunaren eta Pierre Betelu dantza maisuaren bitartez, telak Iparraldetik ekarri zituzten eta ondoren Kontxik josi zituen. Arropa politenak dira hauek. Neskek buruan lorez josiriko koroa bat daramate eta mutilek lorez eginiko txapela. Abarketak ere oso bereziak dira, eskuz bordatuak baitaude.

1992

Branlea Zuberoa
Brasil eta Grezia. Haritzek **Erronkariko Ttun-Ttuna, Urdiaingo Nesken Dantza eta Lesakako Dantzak** aurkeztu zituen. Ttun-Ttunerako Claude Iruretagoienak josi zituen arropak, Iparraldean tela hobeak eta aberatsagoak baitaude. Urdiaingo nesken dantzarako bi gona eramaten dira, horietako bat burutik behera jarritz. Euskal Herriko nesken dantzarik zaharrena da eta kantatu ere egiten da. Lesakako Dantzetan, dantzariak txintxarriak daramatzate belaunetan eta gorputzean eskapulario bat hiru zatitan banatua, erdikoan San Ferminen irudi bat dago. Koloretako lazoak daramatzate eta dantzariak makila batez lotuak joaten dira kalean zehar.



AZKUE



AZKUE

AZKUE

Tour-eko porrak

Orain dela 14 bat urte Truk tabernan Vuelta, Giro eta Tour-arekin porrak egiten hasi ginen. Hogeita bost bat lagun ginen hasieran eta gaur egun 39 gara, batzuek bakarka jokatzeko dute eta beste batzuek taldeka. Badira peñak eginda dituztenak, "Los suertudos", "Peña marisco"... Pertsona edo "peña" bakoi-tzak diru kopuru bat jartzen du: Vueltan eta Giroan 4.000 pta. eta Tour-ean 5.000 pta. Hogeita bi etapa izaten dira, beraz, eguneko 200 bat pta. dira jokatzeko ditrenak. Txirrindulariak jende guztiaren artean zozketatzen dira. Baina zozketa ez da nolana izaten, "teledirigidoa" da. Pertsona bakar bati Indurain, Berzin, Rominger... hau da, faborito guztiak pertsona berdinari ez tokatzeko, zozketatik apartatu egiten dira. Ez hauek bakarrik, 39 txirrindulari onenak kentzen dira eta talde bakoitzari bat egokitzen zaio. Honela ez zaizkio inori bi faborito tokatuko. Gainontzeko txirrindulariekin zozketa egiten da, 189 bat dira orotara. Esate baterako, talde bati Indurain tokatzen bazaio, nafarra gehi beste hiru txirrindulari izango ditu eta beste talde batek

hiru izan beharren lau eduki ditza-ke.

Txirrindulariak banatu ostean eta Tour-a hasten denean, guztira biltzen diren 195.000 pta. inguru, sari banaketarako erabiltzen dira. Aberasteko modurik ez dagoen arren, sariak ez dira txarrak: etapa irabazten duenarentzako 1.500 pta., eta bigarren, hirugarren, bosgarren, zortzigarren, hamaikagarren eta hamazazpigarrenarentzat 500 pta. Sariak honela banatzen dira irabaziak konpentsatzearen; ze behin Giroan, Bugno tokatu zitzaion bati eta 17.000 pta. tik gora irabazi zituen. Bukaeran, sailkapen orokorrean maillot horiari 10.000 pta. ematen zaizkio, bigarrenari 8.000 pta. hirugarrenari 7.000 pta. eta horrela lehen hamarrak arte. Gero, hamarren guztiak ere jasotzen dute saria: hogeigarrenak, hogeita hamargarrenak... 1.000 pta. bakoitzak ehungarrena arte. Mendiko sailkapeneko lehen hirurak, lehen hiru gazteenak eta azken hiru sailkatuak ere saritzen dira, "farolillo rojo" deitzen dena.

Gaur egun, zozketak egiteko laguntza izaten dut. Oso jantzia egon behar da puntako txirrindula-

riak zeintzuk diren jakiteko, sprinterrak, eskalataileak... 39 horiek aukeratzea ez da erraza izaten. Vueltan, arazoak izaten ditugu 39 figura ateratzeko, puntako txirrindulari asko ez direlako izaten.

Elgoibarren tabernetako porrez gain, lantegietan ere badaude, sasoi batean gehiago egiten ziren arren. Kartutxon, Aterpen, Usuan, Kaian... urtero egiten da eta Danobat-en ere bai. Eta hauez gain, egunkarietan izaten da aukerarik. Porra batean parte hartzeko ez da "entendidoa" izan behar. Badaude zaletu amorratuak direnak baina ezertxo ere ez dakitenak ere. Aurtent Indurain, Zulle, Pantani edo Riis tokatuz gero, dirua irabaz daiteke.



JULEN KONDE



**HERRI-
GAIN**
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR



okindegia eta gozotegia
ROTERO
San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

Egin al duzu sekula porrarik Tour-ean?



HUMBERTO FERNANDEZ
17 urte, ikaslea

Ez, txirrindularitza gustatzen jata baina ez naiz jarraitzaile amorratua. Telebistan etapia jarraitzen dot eta Indurain asko gustatzen jata.



J. LUIS IBARZABAL
36 urte, irakaslea

Oin ez, baina gaztetan ein izan det, kuadrilan. Tour-a jarraitzen det eta etapia ahal doten guztietan telebistaz ikusten det.



MARINA GABIOLA
29 urte, proiektista

Ez, sekula ere ez. Txirrindularitza ez zait gehiegi gustatzen. Kinielen asuntoa ondo dago lagunartean saltsa sortzen duelako.



JOSE JAVIER GARCIA
38 urte, langabetua

Lehen, lantegian egin izan dut lankideen artean eta denetarik tokatu izan zait. Aurten, "Diario Vasco" k antolatu duen kinielan parte hartzen ari naiz.



FELIX AIESTA
64 urte, jubilatua

Iaz Jai-Alaixan ein gendun hiru lagunuen artian eta Abdujaparov-ekin 5.000 pta. irabazi genitxun. Aurten asmua bai, baina jun orduko beteta zauan.



MONTSE EGANA
39 urte, klinika laguntzailea

Nere senarrak egiten du, taldean. Niri Tour-a jarraitzea gustatzen zait eta ahal badut etapa gaeuz ikusten dut, errepikatuta.

TABERNA

Lci wpct vgnq
clct kvct cmq rgnw
cr tq rqc

Abuztuan irekita!

San Roke auzoa 5. ☎ 74 25 95




- Eramateko
- OILASKO ERREAK**
- Hobe aurrez eskatuz gero

ZALDUA
ITURGINTZA


GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30



Mazantini kuadrilakoek

“ezkondu eta ezkongabeen” arteko partidua jokatu dute sapatuan, goizeko 10,30etan, kuadrilako inortxok ere apaizaren bedeinkaziorik jaso ez duen arren. Urteroko ohitura da Madalenetan futbito partidua jokatea Urasandin; ondoren Berasetan bazkaldu eta gauean, Mutrikuko jaiak aitziki, parrandatxo egitea. Udan ezezik, abenduan ere beste partidu bat jokatzeko dute gaitzailak “errebantxa” izan dezaten. 1991n hasi ziren ohitura honekin eta ia beti “ezkonduak” irabazten omen dute. Ea aurten “ezkongabeak” errebantxarako aukerarik duten.



Lanbide Eskolako bi ikasle

Espainia mailan antolatzen den “Jueventudes Citroen” automozio lehiaketan sailkatu dira. Urrian Madrilan froga praktikoa izango da eta han nagusitzen dena izango da lehiaketako irabazlea. Josu Vazquez, 20 urteko usurbildarra eta Iñigo Etxabe, 18 urteko zarauztarra izan dira ikasle sarituak. Bi gazte hauek automozioa ikasten ari dira Lanbide Eskolan. Lehiaketan parte hartzeko, Citroen Xantia kotxearen suspentsio sistemari buruzko ikerketa bat egin behar izan zuten.

■ Pilota Txapelketa Sigman

Datorren astelehenean, hilak 25, Santiago eguna, Sigmako Esku Pilota Txapelketari dagozkion finalak jokatu dira. Goizeko 10etan hasiko dira gazteen finalak Sigmako frontoian. Jarraian, 11ak aldera bigarren mailako afizionatuen txanda izango da eta lehen kategoriako afizionatuen partiduak jokatu dira ondoan.

■ Aoiz Kultur Etxean

Elgoibarko HBk antolatuta, Nafarroako Lgebiltzarreko eta HBko Mahai Nazionalako kide den Floren Aoizek hitzaldia emango du ostiralean, hilak 21, Kultur Etxean arratsaldeko 7,30etatik aurrera. Aoizek “Euskal Herria Askatu” kanpainaren inguruan hitz egingo du.

HBk lan kontratazioak salatu ditu

Herri Batasunak Elgoibarko Udaletxean aspaldian egin diren hainbat kontratazio salatu ditu. Pedro Mendizabalek azaldu zuenez, “San Pedro kanpako zaindari berriaren kasua benetan adierazgarria da. Orain bi urte froga bat egin eta zerrenda bat osatu zen, zerrenda horren arabera deitzen zitzaizalarik jendea. Aurten kontratatu den pertsona ez da zerrendan inondik inora agertzen”. Horrez gain, “Kultura Teknikariaren haurdunaldian INEMera deitu zen norbait behar zela eta. Aurkeztu zirenek denbora gutxira ohar bat jaso zuten, mementuz inor behar ez zela esanez. Asuntua da urtebetez pertsona bat izan dela, ordezkoa egiten lehenik eta

laguntzaile gisa ondoren”. Min-txetako aldagelen arduradunaren kasuan gauza bera gertatu omen da, “pertsona bat behar eta “a dedo” aukeratu zen. Azkenean pertsona hori kalean geratu da jendea kexatu egin delako”. Euskara Teknikaria haurdun izan zenean, “Udal Euskaltegian lanean zegoen pertsona bat egon zen bere orde”. HBk guzti hauek salatu ditu, “Udaletxean kontratazioak inolako kriteriorik gabe egiten dira, PNVko jendea da kontratatzen den lehena eta guk hau salatu nahi dugu; hauteskunde kanpainan alderdi guztiek esan bezala, gardentasun osoz egin daitezten”.



Joseph Esclusa kataluinarra Kultur Etxean izan zen pasa den ostiralean Himalayari buruzko erakusketaren inaugurazioan. Argazkilariaz gain, bertan izan ziren Gillermo Garate alkatea, Ana Santolaya Kultur zinegotzia eta Ongarriko Ramon Ortega argazkilaria. Zuri-beltzeko erretratuak dira Esclusak ateratakoak, Himalayako biztanleen arima azaltzen ahalegindu delarik. Hogeita hamabost argazkik osatzen dute bilduma eta hilaren 29ra arte egongo dira ikusgai.

■ Zakarrentzako boltsak

Gurutze Gorriak kanpaina berri bati ekin dio. Aire Libreko zinea izaten den guztietan, ikusleen artean 20 boltsa banatuko dituzte jendeak zakarrak bertara bota ditzan. Boltsak itxi eta Gurutze Gorriak jasoko ditu zinea amaitzean. Jendeak errespetatzea eta zakarrak boltsetan sartzea eskertuko luketela jakinarazi dute.

■ Odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 28, ohiko odol ateraldiak egingo dira Odol Emaileen Egoitzan, (Pedro Migel Urruzuno, 8). Aurrez deitutako pertsona guztiak ager daitezzen eskatzen zaie biziak salbatzeko ezinbestekoa baita odola ematea. Gogoratu elkarteke bazkide egin daitekeela bai odola emanaz baita bazkide babesle egingez ere.

■ %86ak gainditu du ikasturtea iMHn

Erraminta Makinaren Institutuko datuen arabera, bukatu berri den 94-95 ikasturte honetan, modulu etako lau taldeek eta aurremodulu etako hirurek, emaitza ezin hobekak izan dituzte. Guztira ikasleen %86ak gainditu du ikasturtea. Ikasle batzuk uztailean zehar enpresetan praktikak egiten dihardute. Balorazio orokorra, beraz, "oso positiboa da; ikaslego kopurua gainera, hazi egin da". Datorren ikasturtera begira, 260 ikasle eman du izena, hauetatik 100ek bakarrik izango dute iMHn ikasteko aukera.

■ Udako I. Xake Txapelketa

Zubi-Ondo elkarteak antolatuta Udako I. Xake Txapelketa izango da hilaren 26, 27 eta 28an. Hogeita hamar minutu izango du jokalaria bakoitzak partida bakoitzeko. Izena Juan Mugerza kaleko egoitzan edo Bar Estación-en eman daiteke hilaren 26an beranduenez. Txapelketa edonori irekia dago, asmoa xakearekiko zaletasuna piztea delarik. Partidak Juan Mugerza kaleko egoitzan izango dira gaueko 21,30etatik aurrera.

ARRATS

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58

ZULAIKA ANAIK

JANARI DENDA

Jaiak ondo pasa guztiak!

Garagarza auzoa, 36
☎ 75 61 05 Mendaro

ARBOLETA Jatetxea

Ondo pasa jaiak!

Jcgvcp dcl mcrf wgf q
clcnl gmq ignwv r t q r que

Hirurtasun kalea 3 • MENDARO • Tel. 75 60 45

Lourdes Odriozola:

"Dantza nire bizimodua da"

Hiru urte zituela euskal dantzeekin batera balleta ere hasi zen ikasten. Gaur egun 30 urte ditu eta ez dio dantza egiteari utzi. Soinketa irakaslea da ogibidez, baina bere burua dantzarizat dauka batez ere. Lourdes

Odriozola askok eta askok ezagutuko dute, gehienbat Haritz Dantzari Taldeko irakaslea delako. Era batera edo bestera, bizitza dantzatzen ematen duen emakume hau gertutik ezagutu nahi izan dugu. Eta hala egin.

- Oinez hasi orduko dantzan ikasi zenuen .

- Ia-ia, bai. Hamalau urterekin, lagun askok balleta utzi zuten baina nik jarraitu egin nuen, Institutuan goizez ikasi eta arratsaldean Eibarrera joaten nintzen balletera. Euskal dantzan ere jarraitu nuen eta poliki-poliki, balletean nenbilela eta ariketak egiten nekizkiela eta, Haritzen gehixeago sartzen hasi nintzen, batez ere dantzan hasi aurretik beroketa ariketak irakasten.

- Gaur egun soinketa irakaslea zara, ez?

- IVEF egitea zen nire asmoa, baina dena ezin eta klasikoarekin jarraitzeko, magisteritza egitea erabaki nuen. Ikasketak amaitu eta berehala hasi nintzen lanean eta gaur egun Mutrikuko Ikastolan soinketa irakaslea naiz.

- Damutu izan al zara?

- Damutu ez, baina pentsatu izan dut agian ikasketak amaitu eta lanean hasi izan ez banintz erabat sartuko nintzatekeela dantza munduan.

- Halere nahikoa sartuta zaude oraindik, ez?

- Bai, hala da. Orain urte batzuk, musikeskolako ballet klasikoa umerik



"Ballet klasikoa oinarrizkoa da edozein dantzariren formazioan"

gabe geratu zen eta guk, ordea, Haritzen gero eta gehiago geneuzkan. Horregatik, batzea erabaki genuen eta Dantza Eskola sortu. Aurten 6 eta 16 urte bitarteko 255 haur izan ditugu, batetik nik ballet klasikoa irakatsi diet, oinarrizkoa baita, eta, bestetik, Haritz Taldeko monitoreek euskal dantzak.

- Aerobic-a ere egin izan duzu.

- Bai, Espainiako Aerobic Federazioko lehendakaria, Ana Txarola, oso laguna dut eta berak animatu ninduen. Oso aurreratuta dagoen bide bat da, aberasgarria eta, nolabait, ariketa fisikoa eta dantza uztartzen dituen. Gimnasia egiteko era atsegin bat da. Gainera, Donostian ospatu zen lehenengo Aerobiton-ean hirugarren postuan sailkatu nintzen, lau ordu eman

nituen aerobic-a egiten.

- Zer da dantza?

- Bizitzeko era bat da, mugimenduaren bidez hainbat gauza, sentimendu adierazteko era. Nire bizitzan beharrezkoa dut dantza, nire bizimodua da.

- Zein da gehien atsegin duzun dantza mota?

- Euskal dantzak egiten nahiko ondo moldatzen naiz eta oso gustura egiten ditut. Klasikoa ere asko gustatzen zait, modernoa, jazz-a, kontemporanea, saloiko dantzak... Denak egiten ditut oso gustura.

- Oporrak noiz?

- Goizeko 8etan ateratzen naiz, arratsaldean 5ak aldera iritsi eta 6etatik 9etara haurrei klaseak ematen dizkiet. Astearte eta ostiraletan euskal dantza nagusiei eta hama-bostean behin Baionara, dantza monitore izateko titulua ateratzera. Egun osoa ematen dut dantzan eta oporrak dauzkadanean ere etengabe ari naiz ikastaroren bat egiteko asmoarekin, beti dago zerbait ikasteko. Gorputzak eskatzen didan zerbait da. Hanka igeltsoarekin izan nuenean ere, klaseak ematera joaten nintzen, beraz...

KiliBARREN

Mendaroko gehiagarria

Uztailak 21

19. Alea

Zer gehituko edo kenduko zenieke Santa Ana Jaiei?

Santa Ana jaien bezperan, jaien usaina hasi dela eta, iritsi da zapi berdea armariotik atera eta txukuntzen hasteko ordua. Santa Anako jai giroan izango dira aurten ere txorizo bokadiloak jan eta txakolinez bero-bero jarriko direnak. Ez dira faltako Men-

daroko kaleetan urteroko tanbor-burrundarak ez eta era guztietako dantzariak eta musika hotsak ere. Jai guztietan herritarrak izaten dira protagonistak. Ikus dezagun zer dioten mendarotarrek. Iritziak iritzi, ondo pasau Santa Anak!

Nuria Gerola

21 urte, administraria

"Ez nieke ezer kenduko baina gauza asko gehituko nizkieke. Adibidez, goitibeherek jende asko ekartzen zuten eta ambiente ona egoten zen. Bestalde, uste dut mendarotarrek ondo antolatzen ditugula jaiak eta elkarri asko laguntzen diogula"



Oihana Lizarralde

8 urte, ikaslea

"Ia dena gustatzen zait. Umeen egunerako ilusio haundia dut tanborradan joko dudalako. Umeen egunean noria bat egotea gustatuko litzaidake. Ez zait gustatzen gauean jendeak zarata ateratzea, ezin baitut lorik egin"



M. Jose Leniz

35 urte, etxeoandrea

"Rock kontzertua kenduko nuke eta horren ordez beste talde bat jarri. Santa Ana egunean Laja eta Landakanda etortzea gustatuko litzaidake, haiek izugarritzko ambientea jartzen baitute".



Enekoitz Lazarobaster

16 urte, ikaslea

"Zezen gehiago ipiniko nituzke ahal bada, goizetan behintzat. Azkenengo egunean lehenengo berbera eta ondoren diskotekia egotea gustatuko litzaidake. Tanborradan jende gehiagok jo beharko luke eta jaien lehenengo egunean txupinazo antzerako zerbait egon beharko litzateke jaietako hasiera ona emateko".



Sotero Arakistain

55 urte, pentsionista

"Palia kendu eta jendiak eskuz jokatu beharko luke gehiago. Zezen gehixo egon beharko litzateke, jendia ekartzen dabe herrira eta. Gaztiak formal ibiltzen diazela usten dot, ez dira desmadriak egoten, bakian ibiltzen dia".



Oier Perez

11 urte, ikaslea

"Barraka gehiago egotea nahiko nuke eta ahal izanez gero, doan. Zezenak ere asko gustatzen zaizkit. Aurten kriston lokala daukagu eta ilusio haundia dut jaietarako".



Futbito txapelketa

Ikastolako kirol instalakuntzan jokatzeko ari den Futbito Txapelketaren finala bihar, larunbata, hilak 22, jokatu da arratsaldeko 5etan. Aipatu txapelketan 8 taldek hartu dute parte guztira.

Mendaroko X. Txirrindulari saria

Joan zen larunbatean ospatu zen Txirrindulari Sarian, 146 txirrindularik hartu zuen parte. Hauetatik 81 txirrindulari iritsi ziren helmugara. Lehendabizi Jon Del Rio iritsi zen, Orioko taldekoa. Bigarren, Enrike Dieguez, Pinturas Aguilar taldekoa eta hirugarren postuan Ignacio Hidalgo, Transet taldekoa.

Bersto jaialdia

Uztailaren 26an, Santana egunean, Herri Kirolen jaialdia izango da arratsaldeko 6,30etan hasita. Hasiera batean Euzkitze eta Mikel Mendizabal bertsolarien saioa izan behar zen baina azken momentuan aldaketa bat izan da. Hortaz, Euzkitze beharrean, Sebastian Lizaso arituko da Mendizabalekin.

Santa Ana Jaiak

Santana jaien atarian gaude eta egun hauetan izango diren ekintzen entresaka txiki bat egingo dugu. **Larunbatean, hilak 22**, goizeko 9etan VI. Jendaurreko Margo Lehiaketa izango da; arratsaldeko 7etan sokamuturra eta gaueko 11,30etatik aurrera rock kontzertua Ene Bada eta EH Sukarra taldeen eskutik. **Igandean Umeen eguna** izango da eta hauentzat bereziki poniak izateaz gain, tanborrada, su artifizialak eta gauean, Egan taldearekin dantzaldia izango dira.

Uztailaren 24a Gazteen eguna izango da. Ohi denez, poteo eta bazkari herrikoia izango dira, kuadrilen arteko jolasak, sokamuturra, gaudian Play-back lehiaketa eta ondoren diskoteka, frontoian bertan. **Asteartean, Santixo eguna**, arratsaldeko 5etatik aurrera Mutrikuko Banda izango da entzungai eta gaueko 10etan Nagusien Tanborrada. **Uztailaren 26a, berriz, Santa Ana egunean** arratsaldeko 6etatik aurrera Goñati pilotalekuan Herri Kirolen jaialdia izango da.



Argazkia duela 30 urte ateratakoa da gutxi gora behera.



Zahartzaroari omenaldia

Joan den igandean, 70 urtetik gorako 100 inguru mendarotarrek Zahartzaroari egin zitzaion omenaldian hartu zuen parte. Meza izan zuten lehenik eta ondoren, dantzariak, trikilariek, aizkolariek, harrijasotzaileak eta trontzalariek beraien saioa eskaini zuten. Arratsalde partera, berriz, pilota partiduak jokatu ziren honako emaitzekin: Ubera II-Antxia 18, Balzola-Lazarobaster 22 eta Olaizola-Deskarga 16, Dani-Apeztegia 22.

EGANA

PROTAGONISTAK



Hilabete honetako argazkia **José Antonio Zubiaurrek** lagatakoa da. Esan digunez, 1965. urteko argazkia da. Jendea Andra Mari jaiak ospatzen ari da. Jai hauek Azpilgoeta auzoan ospatzen ziren eta aurten berriz ere ospatzeko asmotan dabilta. Argazkian globo antzeko bat agertzen da hiru pertsonen eusten dutelarik. Globoa, azpitik sua jarriz eta berotuz, puztu eta zerurantz ateratzen omen zen. Argazkian daudenak, ezkerretik eskuinera: **Jose Antonio Zubiaurre**, **Jose Ignacio Korta** eta **Jose Luis Arrillaga** (aulki gainean).

3

Aitor Motriko BIZI POZA txarangako kidea



- Noiztik musikarekiko afizioa? ■ Betidanik dudala esango nuke, txikitatik.
- Bizi Pozako kidea noiztik? ■ Duela hiru urtetik.
- Non jotzen zenuen lehen? ■ Mutrikuko bandan, 13 urte nituenetik 28 urte egin arte.
- Zein instrumentu jotzen duzu? ■ Saxofoi tenorea.
- Gehien atsegin duzuna? ■ Bibolina ikasiko nuke gustura.
- Nork erabakitzen du zein kantu jo behar duzuen? ■ Nik.
- Zenbat zarete Bizi-Pozan? ■ 17 kide gera mementuz.
- Zerbait botatzen duzu faltan? ■ Aurten jende gutxiago gaude eta datorrenean gutxiago izango gara. Gazteak animatzea espero dugu.
- Txaranga ala orkesta? ■ Orkesta bat egitea oso zaila izango litzateke baina, era berean, oso atsegina.
- Santa Anak ala Mutrikuko jaiak? ■ Biak.
- Festetarako aminatuta? ■ Bai, oso aminatuta.



JOSE URAIN:

"Santa Ana egunian lehen egoten zian bertsolarixak nahixao nitxun"

Mendaroko zaindaria Santa Ana da eta bere omenez egiten dira herriko jaiak. Egun horretan, Santa Ana ermitan meza izaten da eta ondoren, bertsolariak eta trikitilariak. Hau guztiaz gozatzeko eta barrua kanpoa bezain alai jartzeko, ogitartekoak eta txakolin freskua izaten dira nonnahi. Eguerdian bazkari herrikoa eta arratsaldetan herri-kirolak. Egun bete-betea, beraz. Guztia prest egon dadin hainbat pertsonak egiten du lan. Hara hona Jose Urainek, Bustinalde soziedadekoak, kontatu dizkigunak antolakuntzari buruz.

- **Noiztik diharduzue lan honetan eta nolatan?**

- 1983an hasi ginan. Udaletxeak soziedadeei ekintza batzuk egitea eskatzen die eta beste elkartiek beraien eginkizunak ditzuen bezela, guk hau hartzia erabaki gendun. Guretzat obligazio bat da, derri gorrez egin bihar dogun lana. Hala ere, gustora eitzen dogu ohixura zahar bat dalako.

- **Nolako izaten da prestakuntza?**

- Hamabost egun lehenago hasten gera zer eraman, zenbat eraman eta abar erabakitzen. Santixo egunian,- goizeko 8etarako

hasten gera lanian, barria montatzen, gauzak prestatzen... jendia datorrenerako dana puntu-puntu egon daixan.

- **Zer eskaintzen duzue?**

- Txorizo bokadiloak, txakolina, ardua, umientzako Kasa eta Coca-Cola eta abar. 300 bokadilo eramaten hasi ginan eta gaur egun 350 eramaten ditzugu, ixa dana saltzen da.

- **Nola moldatzen zarete trasteak gora igotzeko?**

- Iritsi daitekeen lekuraino Land-Rover- ez eramaten ditugu eta handik gora lepuan, bertaraino ezin baita autorik iritsi.

- **Joaten al zarete Santa**

Ana eguneko bazkarira?

- Ez, ez daukagu astirik. Goizeko hamarrak aldera hasten da jendia mobitzen eta jende gehixen 11,30etatik 13,00era bitartian egoten da. Gero, guk dana jaso bihar dogu. Traste guztiak ordenatu, barria kendu eta inguru guztia garbitxu bihar dou lehen bezala utziz. Ondoren, soziedadiaz gauza danak ordenatu bihar diaz. Gero, lanian ibili geranok soziedadiaz bazkaltzen dogu.

- **Zein da zuretzat Santa Ana egunaren esanahia? Aldatu al da?**

- Herriko zaindarixa da eta gu txiki txikitatik jun

izan gera Santa Anara, trago batzuk jo, bertsuak entzun, herri kirolak ikusi... Oin jende gehixo ibiltzen da baina ekintzak berdinak dia. Lehen, Mateo zanak, tabernarixak eramaten zitzun bokadiluak eta edarixak.

- **Zer iruditzen zaizu beti etorri diren bertsolariak eta trikitilariak aldatzea?**

- Oin etortzen dianak oso onak dia baina nahixao ditzut Lazkano-Agirre eta Laja eta Landakanda. Horiek dia gure ambienteak eta gainera, Santa Anako girua hobeto ezagutzen dabe, badakixe jendiak zer nahi daban.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

LEKU ONA

- **Plater konbinatuak**
- **Ogitartekoak**

Ondo

Mendarozabal 13, Tel. 75 60 65

EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

KONPONKETAK • MANTENUA
BIRMOLDAKETAK • SALEROSKETA

Mendaroko industrialdea, A-2-16. Tel. 75 50 93

20850 MENDARO

Aitor Eizagirre

Generali bidaietxe
eta aseguruetxekoa



● **Zein bidaia egingo zenuke aurtengo udan?**

▶ Kruzero bat egingo nuke.

● **Aurten jendeak zer eskatzen du?**

▶ Kataluniako kosta eta Hego Amerika.

● **Jendeak zer asegurutzen du?**

▶ Beharrezkoa, bestela ez dugu gauza kuriosorik aseguratuta.

● **Zuk, zure gorputzeko zein atal aseguratu zenuke?**

▶ Ahotsa.

● **Elgoibarko tokirik politena?**

▶ Beharbada, San Lorentzo.

● **Abesti bat?**

▶ "Dime que no es así, Joe".

● **Eta gorroto duzun abestia?**

▶ Pantojaren edozein abesti.

● **Loteria tokatuz gero, zer egingo zenuke?**

▶ Puff!! Horrenbeste aldiz pentsatu dut, ba betikoa, zuloak tapatu eta bidaia bat haseran.

● **Mendia ala hondartza?**

▶ Hondartza.

● **Eguzkia ala eguzkiaren geriza?**

▶ Eguzkia.

● **Hamarretakoa ala merienda?**

▶ Hamarretakoa, beno ez, biak hobe.

● **Mintxeta ala Lerun?**

▶ Mintxeta, gauza batzuk galdu arren, askoz erabilgarriagoa baita ekipo guztientzat.

● **Norekin hartuko zenuke gustura kafea?**

▶ Pelé futbolariarekin.

● **Makailaoa saltsan ala diskotekan?**

▶ Saltsan, dudarik gabe saltsan.

● **Zenbat urte izan nahi zenuke?**

▶ Hogeita bi.

● **San Ferminetara joan al zara?**

▶ Ez, ez naiz sekula joan. Lesakara bai, baina Iruñeara sekula ere ez.

● **Bukatzeko, Tour-erako pronostikoa?**

▶ Indurainek irabaziko duela uste dut.

JOSEBA GOROSABL

JOSEBA ETXEBERRIA

DOINUA:

Zazpi puntukoa

Istilu franko sortu du gaiak
ezin du inork ukatu
egunkari eta irratietan
egunero hamaika datu
kirol honetan pertsona askok
lanbidea du bilatu
nork berea defendatu
hori al degu pekatu? (BIS)
Arazo honetan ez dut nabari
nork dun okerren jokatu
San Mameskoek ala Realak
ez dulako baloratu.



JON PELI URIGUEN

Mendarotari *Ondo pasa jaiak!*



ORBEGOZO
Azpilgoeta, 5 • 20850 MENDARO
Tel-Faxa: (943) 75 51 47

UDA
ELGOIB



**JATETXEA
ETA
TABERNA**

P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

Udaletxearen zerbitzuak abuztuan

Udarekin batera oporrak ere iristen dira, urte osoan zehar horrenbeste espero ditugun jai-egunak. Udaletxeko zerbitzu batzuk mantendu egingo dira, hala nola, idazkaritza eta ongizatea. Hirigintza abuztuko lehen astean irekita egongo den arren, gero itxita egongo da. Kultura eta kirola, berriz, jaietarako jarriko dira martxan eta Liburutegia, Olaizaga kiroldegia eta Mintxetako muskulazio gela hil osoan zehar itxita egongo dira.

Jaiak eta Ikurriña

San Bartolome jaiak direla eta, Elgoibarko Herri Batasunak zera eskatu du: Ikurriña izan dadila, herrikoarekin batera, Udaletxean ikusiko dena. Ildo honetatik HBk bi proposamen luzatu ditu jaietarako. Batetik, Alkateak berak jar dezala Ikurriña jaien hasieran eta bestetik, herriko intsumitu bat izatea jaien txupinazoa botako duena. Helburua Ikurriña era ofizialean jartzea da, HBren ustez, "bera baita Euskal Herria ordezkatzeko duen bakarra".

Udalak herriko zenbait bazter berri ditu udari begira

Uda sasoiaren bete bete sarrututa egoteak hainbat aldaketa ekartzen ditu edozeinen bizitzara bai eta beste arlo askotara ere. Eta horien artean ezin ahaztu Elgoibarko Udaletxea ere. Bat baino gehiago konturatu zen azken asteotan makina bat aldaketa egin direla herrian. Besteak beste, Madalako parkean banko berriak jarri dituzte, egurrezkoak, eta beste zenbait zonan, Plaza Txikian edo Ubitarten


adibidez, lehen zeudenak margotu egin dituzte, itxura berria eman diete.

Melitongo autobus geltokian ere, eserlekuak jarri dituzte zain egon beharreko uneak eramangarriagoak izan daitezkeen.

Era berean, han hemenka dauden lorategiak lora koloretsuz eta biziz beteak ikusi ditzakegu, brigadako lorazainek ez dute, ez, makaleko lanik egiten.



■ ■ Madalako parkean egurrezko bankoak jarri dituzte.



S

Maria Angelesa

Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 75 59 86


Parrokiako portada

- Portada, dorrearen beheko gorputzaren edo basamentuaren espazioari dagokio. Basamentuaren lau arku zorrotzak matxoietan eusten dira. Sabaitik nerbio asko dituen tertzelezko ganga bat hedatzen da. Nerbioek zirkulu bat eratzen dute eta hauek gakoan bidez elkarri lotuta geratzen dira.
- Sarrerako ate nagusia arku zorrotz itsu batez inguratuta dago eta bi zati bereiz daitezke. Beheko partea ateara eta bere alboek osatzen dute eta goiko parteak, arku zorrotzaren bukaerari dagokiona, tinpanoa eratzen du.
- Beheko partean ate garaiak hartzen du espazio gehien, ataburu eta atezango finaz eta leunaz eraikia. Atearen alboetan idulki edo pedestal eta zutabeen artean horma-zulo bana daude. Idulkiak molduraz dekoratuta daude eta zutabeen euskarriak dira.
- Zutabeak, berriz, harroina, fuste leuna eta kapitel konposatuz osatuak daude. Erdian horma-zuloak irekitzen dira, eskulturentzako oinak eta, goiko aldean, maskor bana dutelarik. Maskorrek txarnela batez dekoratuta daude. Maskorren gainean, baita ere, landarez osatutako dekorazioa ikus daiteke.
- Ezkerreko horma-zuloan Loiolako Inazio eta San Anton aurkitzen dira. Biek, antzeko jarrera erakusten dute, eskuineko eskua bularrera bildua eta ezkerrean liburua daramatelarik. San Antonen eskuin aldean txerri bat ikus daiteke eta San Inaziok gurutzea darama.
- Goiko partea tinpano modura eraikitzen da. Beheko parteko bi

zutaberen kapiteletan apoiaturik bi taulamendu zati eta erlaiza moduko bat daude. Azken hauetan, pilastrak eusten dira beste bi taulamendu zatiz arkuen kontra bukatzen direlarik.

- Bi pilastra horien erdian horma-zulo bat irekitzen da eta bertan San Bartolomeren irudia agertzen da, bi gaizkile larrutzen ari direlarik. Eskultura hau harri zuriz egina dago eta urduritasuna eta mugimenduaren islada nabarmena da.
- Goiko horma-zuloaren maskorren gainean, harmarri gisara antolatuta, Jesusen Bihotzaren enblema dago, koroiak, aingeruek eta burutxo hegadun batek inguratua.
- Pilastraren alboak landarez dekoratuta daude, zentzu naturalista emanaz.
- Portada oso ongi neurtuta dago espazio aldetik, dekorazio aldetik bai eta eskulturrei dagokienean ere.

PELLO ARRIETA



Ramon Galdos

(1903-1995)



- Sagarraga baserrian (San Migel) jaio zen 1903ko irailaren 15ean.
- Gaztetan ikasi zuen ebanista lagintza. Errosario kalean zeukan arotz lantegia.
- Krisia zela eta tailerra itxi eta Udaletxean hasi zen lanean 1931. urte inguruan.
- Udaletxeko langileen buru zen. Bere lana merkatu plazako erreziiboak kobratzea, garbitzaileen, bonberoen etab.en ardura izateak eta beste zenbait zereginak osatzen zuten.
- Udaletxean bertan bizi izatea zen lanaren baldintzetariko bat, egunez ezezik, gaez ere tokatzen baitzitzaion lan egitea.
- 40 urte eman zituen Udaletxean, 1972ra arte gutxi gora-behera.
- Ehiztaria zen eta mendizalea ere bai. Domeketan baserrietan laguntzen zuen, pinariak neurtzen, arbolak txertatzen...
- Jubilatutaz zenean arotz lanetan ematen zuen denbora. Egunero, goizez eta arratsaldez mendira buelta egiten zuen.
- Uztailaren 8an hil zen 91 urterekin.



Uztailaren 8an, 91 urte zituela hil zen RAMON GALDOS GURRUTXAGAREN sendiak ESKERRAK eman nahi dizkizue haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.



MOTZAK

Mintxeta irekita egongo da abuztuaren bukaeran

Mintxetako instalazioak itxita egongo dira abuztuaren lehen hamabostaldian. Oporretan jende gutxiago ibiltzen denez, abuztuaren 16tik aurrera irekiko ditu ateak. Muskulazio gela, berriz, hilabete osoan egongo da itxita eta 16tik aurrera atletismo pista eta futbol zelaia erabili ahal izango dira.

Urrezko domina judoan

Ibaiko Gorka Garatek urrezko domina eskuratu zuen 55 kiloz azpitik, Ermuan izan den klubaren arteko txapelketan. Ibai gimnasioko judoek bukatu dute denboraldia eta besteak beste, nazioarte mailan urrezko 7 domina, 2 zilarrezko eta brontzezko 3 domina lortu dituzte. Klubaren arteko txapelketetan 26 urrezkoak, 29 zilarrezkoak eta brontzezko 37. Gipuzkoako txapelketan 17 urtez azpitik hirugarren izan dira, bigarren 19 urtetik beherako Gipuzkoako Txapelketan eta Euskadiko hirugarren 17 urtetik beherako kategorian. Lorpen harez gain, Andoitz Agirregomezkortak gerriko beltza lgo dan lortu du aurten.

Oporrak Kiroldegian

Kiroldegia itxita egongo da abuztuaren. Irailean ikastaro eta zerbitzu guztiak martxan izango dira berriro. Hilaren 24tik 27ra bitartean, Folklore Jaialdia dela eta, frontoia itxita egongo da eta jaialdi egunean, hilaren 27an, zerbitzu guztiak eten egingo dira.



Bittor Nuñez:

"Parapentean hanka haustea arraroa da"

■ **Zer dela eta parapentea?** - Mendien nengoela ikusi nuen. Polita izango zelakoan Arroako eskolan oinarrizko ikastaro bat egin nuen. Gero irteerak egin genituen.

■ **Karakatetik egiten duzue jauzi?** - Bai, eginda dakagu. Mendi bakoitzak salto egiteko egun batzuk dauzka. Karakateren posizioagatik salto egiteko egun gutxi daude. Haizea beti paretik etorri behar zaizu. Karakaten iparra edo mendebaldeko haizea behar da. Arroan adibidez, itsasoko haizeak salto egiteko egun gehiago eskaintzen ditu.

■ **Maniobratzeko aukerarik ematen du parapenteak?** - Gehien erabiltzen dena freno da. Frenatzeaz gain, ezkerreko edo eskuinera joateko ere balio du. Ezkerretik frenatuz gero, abiadura galtzen duzu alde horretatik eta, hortaz, bestea aurreratu egiten da. Horrela lortzen da bira egitea. Baina unerik kritikoenak irteera eta lur hartzea dira.

■ **Zenbat irauten du hegaldi batek?** - Jaitsiera hutsa bada, Karatekoak adibidez 15 minutu. Gai nontzean, ordu asko iraun ditzake. Aire beroen korronteez edo mendiaren aurka jotzen duten haizeez baliatu zaitezke, honi "ladera egitea" deitzen zaio.

■ **Zelan ikusten da herria hor goitik?** - Oso polita. Kolunpio flotante bat beza-



lako da, oso librea da, isiltasuna da nagusi.

■ **Oihal zati batetik zintzilik egoteak ez al du beldurrik sortzen?** - Ohial batek eusten zaituela uste duena oker dabil. Parapentea ez dute lau zorok asmatu. NASAn koheteak errekuuperatzeko asmatu zuten. Gainera parapente guztiak probatu egiten dira saldu aurretik.

■ **Grabitate legeak ez al dizu sustorik pasarazi?** - Irten aurretik badakizu zerekin egin dezakezun topo. Norabide ezberdineko bi haize badaude eta tartean korronte bero bat, parapentea asko mugi daiteke eta istripuren bat gertatu. Parapentea ziurra da muga horiek errespetatuz gero.

■ **"Txori" arrarorik ikusi al duzu sekula?** - Ez. Txoriak dira gurekin beldurtzen direnak.

■ **Nola konbentzitu zenuke pertsona bat salto egiteko?** - Hegaldi bat ikus dezala esango nioke. Ez dela ezer gertatzen ikusiko luke. Oso arraroa da parapentean hanka bat haustea eta futbolearen eguneroko gertatzen da.

- Adina: 36
- Txoria izaterik nahi? Arranoa.
- Nork nahiko zenuke Tour-a irabaztea? Indurainek.
- Futbolzalea? Ez.

LANDA

ERRETEGIA

Garagarza, 32 ☎ 75 60 28

BEREZITASUNAK

♠ LEGATZA CHANPAGNE ERARA

♠ GANBA ETA INTXAUR PUDDING-A

Jaiak ondo pasatu !!

Herriko jokalariekin osatu nahiko luke plantila C.D. Elgoibar Futbol Elkartek

Joan den ostiralean C. D. Elgoibar Elkartek egin zuen urteko asanblada orokorrean, diru kontuen berri, Etxeberriaren fitxajeagatik jasoko duten diruaren inguruko gora-beherak eta beste zenbait gai aztertu zituzten.

C.D. Elgoibar osatzen duten taldeen aurtengo denboraldiaren balorazioa “erabat ona” izan dela adierazi zuen Manolo Esnaola “Muxi” Kirol Elkarteko presidentek. Haundik 41 puntu eta 3 positiborekin bukatu du denboraldia, bigarren taldea lehen errejionalera igo da bai eta taldeko txapeldunorde geratu ere. Kadeteak Ohorezko ligara igo dira, neskek bigarren postua lortu dute, infantilak zazpigarren geratu dira eta jubenilak hamabigarren. Errejionaleko taldearen segimendua “kaxkarra” izan dela aitortu zuen Muxik, “baina aurrerantzean talde bakoitzak zuzendari bat izango du eta jarraipen estua egingo da”. Errejionaleko jokalariek diru-saria jasoko dute: kanpoan eta etxean irabazteagatik 3.000 pta., kanpoan berdintutako partiduetatik 1.000 pta. eta etxean berdintzeagatik ez dute kobratuko.

Gehienak, bertokoak

Haundiren jokalaria herrikoak izatea nahiko lukete zuzendaritza batzordekoek, “%80a gutxienez bertokoak izan behar dira, baina momentuz ezinezkoa da, oraindik orain ez baitago kalitate nahikoa”. Hortaz, Carlos, Belaustegi eta



■ ■ Etxeberriagatik diru-saria jasoko dutela ziurtatu zuen C.D.ko presidentek.

Gurrutxaga ez dira hurrengo denboraldian izango eta hiru jokalaria kanpotar ekarriko dituzte: Zinkunegi debarra, Iban Ermukoa eta Madina mutrikuarra. Oraindik erabaki gabe dago Txartxak jarraituko duen eta Bedaio Eibartik etorriko ote den. Dena den, “oinarriko futbola bultza-

tu beharra” azpimarratu zuen Muxik.

Asanbladan aho batez onartu zuten jokalarien gurasoak, C.D.ko bazkide izatea derrigorrez, salbuespenak salbuespen. Eztabaidarik sortarazi zuen arren azkenean guztien onespena jaso zuen.

Etxeberria dela eta

Joseba Etxeberria Athletic taldera joateak ekar lezakeen diru sarrerari buruz, kobrantza arriskuan dagoen zurrumurrua gezurtatu zuen Manolo Esnaola C.D.ko presidentek. “Funtsik gabeko zurrumurruek dira. Ordainketa aztertzen ari direla eta konponduko garela esan dit Errealeko Exposito jaunak”. Etxeberriagatik Errealak jasoko duenaren %10a C.D. Elgoibar Elkartearantz izango da, “55 milioi baino gutxiago bada ere, ongi torria izango da”. Klubari 5.880.000 pta.ko zorra kitatzeko ondo baino hobeto etorriko zaio dirutza. 94-95 denboraldirako 19 milioiko aurrekontua dauka futbol elkartek. Bazkideen kuotez aparte, kuponazoari esker lortzen dute dirua batzea.

Uztailaren 15ean, 54 urte zituela hil zen **JUAN ANTONIO GOROSTIAGA URAGA**ren sendiak **ESKERRAK** eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.



MINTXETAKO I. FUTBOL TXAPELKETA

Finalean debarrak izan ziren aurrez aurre

Pasa den igandean jokatu zen Udalak antolatutako Mintxetako I. Futbol Txapelketari zegokion finaleko partidua. Debako bi taldek, Xarek eta Lagun Tokik, jokatu zuten eguerdiko 12etan hasi zen finala, Xare taldea 1-0 nagusitu zelarik. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeo partiduan Mendaroko Txirristakak 4-2 irabazi zion herriko Oraiko taldeari. Hortaz, Oraiko izan da herriko lehen taldea, laugarren postuan sailkatuta.

Mintxetako I. Futbol

Txapelketari buruzko balorazioa ona da Udaltzako Kirol Zerbitzuaren iritziz. Hamazortzi talde aritu dira guztira; hauetatik 14 herrikoak, 1 Mendarokoa eta 3 Debakoak izan dira. Hilabete t'erdi iraun du txapelketak. Ostegunetan, larunbatetan eta igandetan jokatu dira partidua. Eguraldia lagun, 53 partidua jokatu dira guztira. Datorren urtera begira, talde bakoitzak arbitro bana aurkez dezan proposatu da, partidua guztien artean arbitratuko direlarik.



■ ■ Xare eta Lagun Onak taldekoek, denek batera agertu nahi izan zuten argazkian. Parekatu xamar ibili ziren arren, azkenean Xarek lortu zuen txapela.



■ ■ Oraiko Cafe taldea izan da herriko lehen taldea. Laugarren sailkatu dira.

SAILKAPENA

OROKORRA

- 1- Xare
- 2- Lagun Onak
- 3- Txirristak
- 4- Oraiko Cafe

Goleatzaile onena: Jagoba Alba (Xare)

Atezain onena: Jon Etxeberria (Xare)



ALUMINIOZKO AROSZTEGIA

jai zoriontsuak!!

❖POLIURETANOA ❖PVC

Mendaroko Industrialdea, 12. pabilioia • TEL /FAX: 75 62 28 • MENDARO

Andoni Tellabide S.L.

ITURGINTZA

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

**Ondo pasa
Mendaroko jaiak!**

Azpilgoeta 19.
☎ 75 50 62 MENDARO

25 urte beteko dira hilaren 26an Mauxitxa sortu zenetik

Mauxitxa txarangak 1970. urteko uztailaren 26an jo zuen estrainekoz Plazentziko Santa Txiki egunean. Uztaileko lehenengo egunetan "Makilak" izeneko kuadrilak txaranga sortzeko erabakia hartu zuen. Hasierako talde hura honako hauek osatu zuten: Luis Mari eta Jose Angel Zubiaurre "Balle"k klarineta, hauen anaia Victor-ek saxofoia, Rikardo Gorritik kaxa, Juan Luis Arregik bonboa, Rikardo Mujikak

txapak eta Txomin Mujikak bonbardinoa. Zuzendaria Jose Alberto Ansola "Mauxitxa" zen. Iazko San Bartolome jaietan, 25. Txiki eguna ospatu zuen Mauxitxa txarangak, baina musika taldea sortu zeneko 25. urteurrena aurtengo uztailaren 26an betetzen da. Zorionak!



■ ■ Iaz 25 Txiki bete zituen Muxitxak. Asteazkenean jairo zenetik 25 urte izango dira.


Sallobenteko jaiak

Abuztuaren 9tik aurrera jaiak ospatuko dituzte San Lorentzo auzoan. Bost eguneko egitaraua prestatu dute Sallobente elkartekoek. Abuztuaren 9an, bezpera eguna, arratsaldeko 6etan jaurtiko da jaien hasiera iragartzen duen txafliua. Ostegunean, abuztuak 10, Santuaren eguna ospatuko dute. Meza nagusia, salda eta txorizoa, pilota partidua eta erromeria izango dute egun honetan. Ostiralerako, Sallobente Txiki eguna, auzotarrentzako bazkaria, haurren jolasak, zezenak eta pottokak, txokolatada, boloak eta erromeria antolatu dituzte. Larunbatean gau-pasa izango da eta goizaldeko 4etan sorpresa. Igandean herritarrentzako mountain-bike txapelketa izango da goizean. Eguerdian lagunarteko bazkaria; arratsaldean, herri-kirolak eta zezenak eta, gauean, erromeria Gelatxorekin.

Jubilatuen eguna jaietan

San Bartolomeetan, abuztuaren 27an, Zaharren Egunean, jubilatuei bazkaria eskainiko zaie. Parte hartu nahi duenak 60 urte baino gehiago izan behar ditu nahiz eta alargunen kasuan ez dagoen adin mugarik. Joan nahi duenak bazkide txartela erakutsi beharko du Zaharren Biltokian goizeko 10etatik 12etara bitartean.

ELGOIBAR INMOBILIARIA S.A.



ETXEBIZITZAK San Roke Poligonoan

1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak

8.224.000 pta.tik gora

INFORMAZIOA: Leku Ederreko lokaletan. ☎ 74 40 34

INTSUMISIOA

Intsumitu elgoibartar bat lehen aldiz gartzelan

Joan den ostegunetik Martuteneko gartzelan dago Lutxi Arregi intsumitu elgoibartarra. Asteartean lagun talde batek egin zion bisita aprobetxatuz, galderatxo batzuk bidali genizkion Lutxiri. Alboko zutabe-

an irakur daitezke guk luzatutako galderak eta berak emandako erantzunak.

Azpiko erretratuan Lutxiren askatasuna eskatzeko larunbatean antimilieek antolatutako manifestazioaren une bat.



Talde antimilitaristaren balorazioa

Talde Antimilitaristak Lutxi Arregi intsumitu elgoibartarrari buruzko balorazioa egin zuen joan den ostiralean emandako prentsurrekoan. “Atxiloketa leku publiko batean gerta zedin nahi genuen, eta ez izkutuan, Ertzantza Lutxiren bila etxera joanez”. Lauzprobost aldiz joan zitzaion Ertzantza bila baina guztietan Lutxi ez zen etxean. Hortaz, pasa den astean Andoaingo SAPA bonba fabrikaren aurrean zazpi intsumituk

b e r r e n

buruak kateatu eta Er-tzantzak atxilotu nahi ez zituenenez, joan den ostegunean Donostiako Justizia Jauregian gauza bera egin zuten. Azkenean, Martutenen katez lotzea erabaki zuten, baina atxilotzeko agindurik ez zutelara argudiatuz Ertzantzak kateak eten zituen. “Hernaniko, Tolosako eta Azpeitiko beste hiru intsumiturekin batera Martutenen dago Lutxi orain. Intsumituen sendiek jasan behar izaten duten egoera salatu nahi dugu bai eta Udalaren pasibotasuna ere. Aspalditik ezagutzen zuten Lutxiren egoera, baina ez zuten ezer ere egin”. Ertzantzaren jokatubidea ere kritikatu zuten, “intsumituak izkutuan atxilotzen saiatzen direlako”. Larunbatean, arratsaldeko 4etan, Martutenera martxa burutuko da Plaza Handitik.

ELHARRIZKETA GARTZELAN

Lutxi Arregi

- Zergatik erabaki zenuen zure burua “entregatzea”?

- Daramagun borrokan, hurrengo pausua delako.

- Noiz arte gartzelan?

- Hamabost egun pasa arte, eta gero, lotara joan beharko dut urtebete eta bi hilabetez.

- Zein usain du gartzelak? - Sartu aurretik

“El perfume” irakurri nuen, hortaz, han aipatzen diren usainen nahasketa nuen buruan.

- Zer jan duzu gaur? - Spagettiak, oilasko petxuga patatekin eta melokotoia.

- Lehenengo gauean zer/nor pasa zitzaizun burutik? - Belarrietatik ingurukoen zurrunkak; burutik lagunak... baina lasai-lasai, leihotik izar bati begira hartu nuen lo. Zer polita, eh?

- Merezki al du gartzelatik pasatzeak zure ideiak defenditzearren? - Bai, “gure gorputzak menperatu ahal izango dituzte, baina sekula ez gure buruak”.

- Intsumitu izatea erabaki zenuenetik pasa duzun unerik txarrena? - Iruñeako presoan ohiuak entzun nituenekoa.

- Astebete pasa denean, gartzelak zure ideiak sendotu egin al ditu? Damurik? - Sendotu egin dira. Burua tente dugu, makurtu gabe.

- Zure burua ausartzat al duzu? - Ez.

- Azken aldian ametsak ala amets gaiztoak izan al dituzu? - Ondo lo egiten dut. Ametsik ez dut gogoratzen.

- Ezagutuko al duzu derrigorrezko soldaduzkari gabeko gizarterik? - Bai noski. Ejerzitorik gabekoa guk ez agian, baina gure ondorengoek bai, zergatik ez?

- Zein eragin izango du honek guztiak zure bizitzan? - Ez dakit.

- Honetatik guztiatik atera duzun gauzarik positiboena? - Benetako elkartasuna bultzatu behar dela.

- Zeren falta duzu? - San Migel garagardoarena.

- Amets bat? - Asko.



Salerosketak

KOTXE INGLES BAT saltzen da 23.000 pta (Kuna, kotxe estalkia eta bainera oparitzen dira)
☎ 75 61 71

ESKOPETA REPETIDORA BAT erosiko nuke. P. Beretta edo antzerakoa.
☎ 74 15 35 Alberto

MTB Camondale 94 T. 48 XTR mtor bat saltzen dut.
☎ 75 62 43 (1,30-15,00)

KANPING kanadiar bat SALTZEN DUT. 5-6 lagunentzat. Egoera onean. 12.000 pta.
☎ 74 11 30 Rosa

Hiru urtetako LAVERIN txakur umea dago salgai. Ehizean daki eta pedigree ona dauka.
☎ 74 00 79 Abuztuan deitu

OMEGA markako ERREPIDEKO BIZIKLETA saltzen dut. Egoera onean.
☎ 74 01 71 Patxi

Egoera onean dagoen bigarren eskuko CANPING DENDA FAMILIARRA edo GURPILDUN DENDA erosiko nuke.
☎ 74 05 37 Mila

Bigarren eskuko VESPA 200 edo antzerako motorra erosiko nuke.
☎ 74 40 62 Agustin

Etxebizitzak

ETXE BIZITZA TXIKI BAT edo buhardila bat alokatu nahi nuke.
☎ Zentralita 900 59 59 59, tel. 40 43 26 Vicen

Lau pertsonarentzako PISU BAT ALOKATU nahi genuke irailetik aurrera.
☎ 65 38 76 Aloña

Alcoceber-en APARTAMENTU BAT daukat alokatzeko (irailean)
☎ 74 22 08

Etxe bat SALTZEN dut ZARAUTZEN. Amueblatua.
☎ 78 19 50

LOGELA BAT ALOKATZEN DUT.
☎ 74 24 06

Apartamentu bat alokatzen dut ALCOCEBERen.
☎ 74 21 86

Lana

FRESISTA BAT BEHAR DA. Baldintzak: FP II edo berdintsua eta euskara.
☎ 74 12 97 - 74 06 64

Gizonezko bat behar da kristalak garbitzeko.
☎ 74 26 77 Setatik aurrera deitu "Kalamua Coop."

Emakume euskaldunak etxeko eta sukaldeko LANAK EGIN EDO NAGUSIAK ZAINDUko lituzke. 17 urteko esperientzia eta kotxeko karneta.
☎ 74 23 30 (Eusebi)

Partikularrak

Estatistika eta Psikometriako klase partikularrak emateko prest dagoen norbait behar da.
☎ 74 17 61 Miriam

Hezkuntza Zientzietan lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin OHO eta REMeko klase partikularrak ematen ditu. Euskaraz eta gaztelaniaz.
☎ 74 39 24 Maite

Tituludun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko, lana aurreratzeko.
☎ 74 04 11

Bestelakoak

Aterpen riñonera bat GILTZ BATZUEKIN azaldu da.
☎ 74 25 95

Elgoibarren lanean diharduen injineruak FAMILIA EUSKALDUN BATEAN astelehenetik ostiralera bitartean BIZI NAHI DU. Lo egin, arropak garbitu eta otorduak.
☎ 74 33 04

Donostian pisua osatzeko 2 pertsona behar dira.
☎ 47 02 32 Miren

Caritas-ek OHE bat eta SUKALDERAKO ARMAIRU bat behar du.
☎ 74 15 09 / 74 12 57

Neska gazte kuadrila batek San Bartolome jaietarako LOKAL MERKE BAT ALOKATUko luke.
☎ 74 32 56

Agurrak

Irlandan dagoen Olatz Arriolari gorantziak eta patxo handi bat Ainhoa eta Danelen partez.

Pasa den larunbatean urteak bete zituen Amaia Madariagari Zorionak! Miren, Yolanda, Erika eta Estixuren partez.

Zorionak IÑAKI zure urtebetetzean eta baita ere uztailaren 24an lehenengo ezko- urtea delako Zorionak amaren partez.

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikirolegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 22 67
El Correo Español...74 10 82
Egin.....11 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki74 34 74

21 OSTIRALA

19,30 HITZALDIA

Hizlaria: Floren Aoiz

Gaia: "Euskal Herria Askatu!" kanpaina

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Elgoibarko HB

21,00 IRRATSAIO BEREZIA ZAZPIKI IRRATIAN

Martutenetik elkarrizketa Lutxi Arregi intsumituarekin.

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"La máscara"

✓ Plaza Handian

22 LARUNBATA

16,00 MARTUTENERA MARTXA

Lutxi Arregi intsumituarekin elkartasuna adierazteko asmoz.

✓ Irteera Plaza Handitik

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"El Rey León"

✓ Plaza Handian

24 ASTELEHENA

10,00 SIGMAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK

Gazteak, lehen eta bigarren mailako afizionatuak

✓ Sigmako frontoian

26 ASTEAZKENA

21,30 UDAKO I. XAKE TXAPELKETA

✓ Juan Mugerza kaleko egoitzan

27 OSTEGUNA

19,00 FOLKLORE JAIALDIAREN HARRERA

✓ Udaletxeko Areto Nagusian

Sogidan **KALEJIRA**

21,30 UDAKO I. XAKE TXAPELKETA

✓ Juan Mugerza kaleko egoitzan

22,30 FOLKLORE JAIALDIA

✓ Olaizaga Kiroldegian

(500 pta. nagusiak/200 pta. gazteak)

28 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuko 8an

21,30 UDAKO I. XAKE TXAPELKETA

✓ Juan Mugerza kaleko egoitzan

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"Rapa Nui"

✓ Plaza Handian

29 LARUNBATA

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"Star gate"

✓ Plaza Handian

MADALAKO JAIK

21, OSTIRALA

19,30 Buruhaundiak

22,30 Dantzaldia Gelatxorekin

22, LARUNBATA

18,00 Jokuak umeentzat

Ondoren, MEZA.

22,00 Malatarren afaria

23,00 Dantzaldia Gelatxorekin

23, IGANDEA

22,30 Dantzaldia Gelatxorekin

txandak FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
22, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
23, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
24, astelehena:	Ormazabal Zabaleta	
25, asteartea:	Ormazabal Zabaleta	
26, asteazkena:	Ormazabal Zabaleta	
27, osteguna:	Etxeberria	Zabaleta
28, ostirala:	Etxeberria	Zabaleta

OKINDEGIA:

23, igandea: FOTERO

25, asteartea: BOUTIQUE DEL PAN

AIRE LIBREKO ZINEA

El Rey Leon

Zuzendaria: Roger Allers eta Rob Minkoff.

Iraupena: 88 min.

Walt Disney estudioen hogeita hamabigarren animaziozko luzemetraia da. Afrikako oihanean Simba lehoia, Mufasa erregea, Sarabi erregina, Scar maltzurra etab. bizi dira. Simbaren aita, Mufasa erregea, hil ondoren, Simbak alde egin behar du urrutira Scar osaba maltzurak erreinutik kanpo bidaltzen baitu. Pumba eta Timon lagun dituelarik bere patua zein den ezagutuko du eta egun batean erreinua erreklamatzeko itzuliko da.

La máscara

Zuzendaria: Chuck Russell.
Antzezleak: Jim Carrey, Cameron Diaz, Peter Riegert.
Iraupena: 101m.

Stanley Ipkiss-ek (Jim Carrey), banketxe batean egiten du lan. Bere bizitza erabat grisa da, lankideen txantxak jasan behar izateaz gain, ez dauka neskengana urrertzeko behar duen ausardia. Egun batean maskara azteka bat topatuko du. Aurpegia harekin estaltzen duen bakoitzean nortasuna arras aldatuko zaio. Maskaraz baliatuz, Edge City-ko gangster arrisksuenari neska-laguna osten saiaturko da.



Oporretan ere
zerbitzurik
onena eskaintzen
dizugu.

Opor egune
egokitutako
ordutegi
aproposa!

ABUZTUKO ORDUTEGIA

**ASTELEHENETIK
OSTIRALERA**

**8,45 - 13,30
6,00 - 9,00**

*Ondo pasa
Oporrak!*

LARUNBATEAN

8,30 - 13,00

Irailaren 1etik aurrera betiko ordutegia

Santa Ana Kalea • tel. 74 21 24 • ELGOIBAR

IBAR TXIKI

EDARI BANATZAILEA



Deba kalea 18

☎ 74 05 03

★ ELGOIBAR ★